



Nire eskua zurean

nobela lantzeko proposamen didaktikoa

Liburuaren fitxa



Izenburua: Nire eskua zurean

Idazlea: Mariasun Landa

Argitaletxea: Erein

Argitalpen data: 2005

Orrialde kopurua: 64

Laburpena

Gaur goizean, kaletik paseatzen genbiltzala, ihes egitea erabaki dut. Ni neu harrituta geratu naiz bat-bateko erabakiarekin. Nola ez zait, bada, lehenago bururatu! Hain argi zegoen! Zer egiten nuen nik, hantxe, bi haiekin paseatzen, amorratuta ama bere nobioarekin besotik helduta ikustean? Bordara! Alde egingo dut bordara!

Zergatik irakurri liburua

Liburuak irakurleari erakargarria izan dakioken gai bat tratatzen du: guraso eta seme-alaben arteko loturak eta harremanak. Alde horretatik, eta ihesaldi baten kronika den aldetik, irakurlea harrapa dezake irakurtzen jarraitzeko, bai eta irakurlea eta protagonistaren arteko identifikazio lagundu. Irakurketa prozesu horretan lagungarria suerta daiteke narratzailearen tonua eta nola uztartzen dituen errealitatea eta gogoetak narrazioaren erritmoa mantenduz. Idazkera sinple baina, era berean, landua du liburuak eta gertakari guztiak ordu gutxi batzuetan jasotzen diren arren ez da astuna egiten. Alde horretatik denboraren erabilera oso egokia da eta ematen diren jauziak ere bai. Are gehiago zenbait pasartetan irakurleari uzten zaio hutsunea bete dezan; irakurketa prozesu eraikitzaile eta sortzaile gisa ulertuz.

Lehenengo pasartea (7.or.) irakurri aurretik

1. Motibazioa pizteko jarduerak

1.1. *Nire eskua zurean* da liburu honen izenburua. Ez dakigu zertaz den, ez eta nortzuk diren protagonistak, baina asma dezakegu istorio ezberdin bat... horretarako sinopsi bat egin kontuan izanik obra hau

- Misteriozko obra bat dela
- Maitasunezkoa
- Laguntza liburua (jendeak auto-laguntza behar duenean irakurtzen dituenetakoa)
- Lagun koadrila baten abenturak.

1.2. Egingo al zenuke egunkarirako albiste labur bat izenburu hau bera duena? *Nire eskua zurean*

1.3. Edo 150 hitz dituen txio bat honi buruz? Zer esango zenioke zure lagun bati... hitz horietatik abiatuta?

1.4. Hiru hitzek osatzen dute liburu honen izenburua. Asmatuko al zenituzke beste liburu batzuen izenburuak antzeko egitura erabiliz? Umorezko liburu batena? Tragikoa? Abenturazkoa?... Izenburua egin eta ea nork igartzen duen zer tematikoa den obra.

2. Ulermena errazteko jarduerak

2.1. Protagonistaren ama Romeorekin dago telebista aurrean eserita. Ba al dakizu nor den Romeo hori? Nondik dator izen hori?

2.2. Egileak "Lurrundu" aditza erabiltzen du. Bilatu hiztegian hitz horren esanahia eta gero, zein izan den egilearen asmoa hitz hori erabiltzean.

2.3. Ondoren dituzu irakurriko dugun pasartearen hiru paragrafo. Desordenaturik daude. Ordenatuko zenituzke?

1- Nolanahi ere, isiltzen ez nintzen bitartean, ihes egitearena indartuz zihoan nigan eta azken aste hauetako egonezin eta kabreoak lurrunduz zihoazen bihotza lasai eta bere-bare sentitu arte.

2- Ni neu harrituta geratu naiz bat-bateko erabakiarekin. Nola ez zait, bada, lehenago bururatu! Hain argi zegoen! Zer egiten nuen nik, hantxe, bi haiekin paseatzen, amorratuta ama bere nobiarekin besotik helduta ikustean?

3- Bada, esan dudan bezala, etxetik ihes egitea erabaki dudanez geroztik erabat lasaitu naiz. Adio ama eta bere bihotzeko txorimaloa! Amak zerbait sumatu ote du? Ez dakit. Etxera itzuli garenenean, ni berehalaxe joan naiz nire gelara.

Lehenengo pasarteak irakurri ondoren

1. Ulermen galderak

1.1. Narratzaileak, Xabik, inoiz ez du esaten amaren lagunaren izena. Horren ordez hainbat modu erabiltzen ditu pertsona hori izendatzeko. Aipatu zeintzuk diren.

1.2. Egileak zenbait hitz gazteleratik hartuta erabiltzen ditu. Imajina pasarte hori gaztelera ez dakien Baionako zure lagun batek irakurri behar duela. Lagun iezaiozu gaztelerazko hitz horiek euskaraz jartzen.

2. Literatura hezkuntza eta sorkuntza

2.1. Mariasun Landa da liburu honen egilea. Honela, bote prontoan, asmatu Mariasun Landaren biografia, zuk nahi duzuna... baina hitz hauek sartu behar dituzu: pobre, atzerri, borrokalaria, elefante eta India.

2.2. Beno, seriotan...ezagutzen al duzu egile honen beste lanen bat? Zein? Zein iritzi duzu obra horri buruz? Zer da gehien / gutxien gustatu zitzaizuna?

2.3. Irakurritako pasartearentzako izenburu bat asmatu

2.4. Egileak gaztetxo bat jarri du liburuaren protagonista, eta kontakizuna Xabiren ikuspuntutik egiten saiatu da. Zertan nabaritu da hori? Aipatu mutikoaren hizkera nabarmentzeko idazleak erabilitako hitz edo esamolderen bi.

2.5. Xabieren istorio hau arratsalde batean hasten da eta hurrengo egunera artekoa da. Egileak denbora laburrean gertatzen dena kontatzen du. Nola egiten du denbora luzatzeko?

Batzuetan elipsi bat gertatzen da kontakizun batean. "Oso haserre joan zen etxera. Handik bi astetara..." edo pelikuletan (gogoratu irudi tipikoa, gizon bat preso, hurrengo minutuan gizon bera ikusten dugu bizar luzarearekin). Mariasun Landak, berriz, istorioaren erritmoa moteldu egin du. Kapaza izango zinateke egiteko denbora ia-ia pasatzen ez den kontakizun labur bat?

2.6. Bakarrizketa eta gogoetak dira lan honen parte nagusia. Irakurtzen ditugun lan gehienak lehen edo hirugarren pertsonan kontatuta daude. Baina badira protagonistari zuzenean "hitza egiten" dioten egileak ere; esaterako Patxi Zubizarretaren *Usoa hegan etorritako neskatoa* ipuinean:

Usoa esaten dizute, hegan etorritako neskatoa. Eta beharbada horregatik, orain bezala, zerura begiratzea atsegin duzu, handik etorri zinela, handik ekarri zintuztelako. Baina orain kezkatuta zaude eta sabelean hamaika mila inurri dabilkizula dirudi. Eta zeruak zure begirada tristeak ikusi du.

Patxi Zubizarreta, *Usoa hegan etorritako neskatoa*. Erein, 2008, 16. or

2.7. Hori horrela izanik, berridatzi liburuaren pasarte labur hau Xabiri zuzenduta:

Anttonekin gogoratzen nintzen, gordeleku bat edukitzearena bere ideia izan zelako, eta une hartan bere hutsunea ikaragarri sentitzen nuelako. Baina Antton oporretan dago. Nafarroan, urtero bezala. Eta ni, bitartean, bi txotxolo horiekin bueltaka, eta, era berean, bakar-bakarrik... Ez nuen gehiago agoantatzen! Bada, esan dudan bezala, etxetik ihes egitea erabaki dudanez geroztik erabat lasaitu naiz. Adio ama eta bere bihotzeko txorimaloa! Amak zerbait sumatu ote du? Ez dakit. Etxera itzuli garenenean, ni berehalaxe joan naiz nire gelara.

Ezetz, ez nuela bazkaltzeko gogorik.

Uzteko bakean, hartutako pintxoekin nahikoa nuela.

Eta ama eta bere Romeo telebistaren aurrean jarri dira, nik, nire gelan eta ezkutuka, motxila prestatzen nuen bitartean...

Xabi?

Ama ate joka. Berehala motxila ohe azpian sartu dut.

Zer?

Ea zer egin behar nuen arratsaldean.

Eta hori esaten zuen bitartean gelara sartu. Baina, ordurako ohe gainean nengoen ni, komiki bat irakurtzen ari nintzelako plantak egiten.

Ez zela ziur, baina seguraski Mikelen etxera joango nintzela bideoaren bat ikustera, erantzun diot nik.

Mariasun Landa. *Nire eskua zurean*. Erein, 2005, 5-8 orrialdeak

Bigarren pasartea (8. or.) irakurri aurretik

1. Motibazioa pizteko jarduerak

1.1. Xabik klaseko neska bat deskribatzen du ondorengo pasartean. Adjektibo bakarra erabiltzen du: *goapa*, baina gauza asko esaten ditu neska horri buruz. Gainera, Xabik kontatzen duena jolas bat da... zuek ere egin dezakezuen jolasa, klaseko bat (edo zuen irakasle bat?) deskribatu (eta ea besteek igartzen duten nor den). Horretarako erregela batzuk jar ditzakezue:

- egiten dituen gauzen bidez deskribatu
- ahalik eta hitz gutxien bidez deskribatu
- gorria, katua eta sumendia hitzak erabiliz deskribatu
- animalia batekin identifikatu... baina ez fisikoki.
- ...

2. Ulermena errazteko jarduerak

2.1. Xabiri gertakari bat "eztarrian iltzatuta" geratu zaio. Zer uste duzu ona ala txarra izan dela? Zer dela eta gera dakizuke gauza bat eztarrian iltzatuta zuri?

2.2. Une batean kasete-zintak aipatzen ditu egileak. Ba al dakizu zer den kasete bat?

Aipatu duela 20 urte ohikoak ziren tresnak eta gaur egun nahiko ezezagunak. Eta duela 60 urtekoak?

Bigarren pasartea irakurri ondoren

1. Ulermen galderak

1.1. Egileak zozotzat hartu du bere burua. Askotan animaliak (edo hauen ezaugarriak) erabiltzen ditugu deskribapen gutxi egiteko.

Zerekin erlazionatzen dira, normalean, ondorengo animaliak:

- azeria (alegia, azeria bezain.... da)
- txerria
- putrea
- sugea
- hontza
- erbia
- nagia
- ...

2. Literatura hezkuntza eta sorkuntza

2.1. Egileak Idoiaren aurpegiak semaforo gorria zirudiela dio. Normalean tomatea erabiltzen da gorria dagoela adierazteko. Eta zer erabiltzen da

- Haserrea adierazteko? (sutan)
- Urduri dagoela? (tximeletak sabelean)
- despistatuta dagoela? (ilargian)
- d)

2.2. aurpegia gorria zuen, tomate bat bezain gorria.

- a) eta zuria denean, zeren bezain zuria? (elurra)
- b) eta beltza? (gaua)
- c) eta hotza? (izotza)
- d) eta mikatza? (ozpina)
- e) eta gozoa? (eztia)
- f)

2.3. Xabik kontatzen duen anekdota ondo, edo ondo antzean, amaitzen da. Baina imajina ezazu deskribapena ez zaiola Idoiari gustatu. Aldatu pasartearen amaiera, "Idoiaren aurpegiak semaforo gorria zirudien" esalditik aurrera.

2.4. Normalean maitasun aitorten hauek poesietan ageri ohi zaizkigu literatura lanetan. Animaliak eta konparaketaka ikusi ditugu lehenago. Egingo al zenuke maitasunezko poema labur bat horiek erabiliz?

2.5. Irakurritako pasartearentzako izenburu bat asmatu.

1. PASARTEA

Gaur goizean, kaletik paseatzen genbiltzala, ihes egitea erabaki dut.

Ni neu harrিতa geratu naiz bat-bateko erabakiarekin. Nola ez zait, bada, lehenago bururatu! Hain argi zegoen! Zer egiten nuen nik, hantxe, bi haiekin paseatzen, amorratuta ama bere nobiarekin besotik helduta ikustean?

Bordara! Alde egingo dut bordara!

Eta ideia hori hain ona iruditu zait ze sinpatikoarena egiten hasi bainaiz tipoarekin. Hizketan. Oporretan noiztik nengoen, baietz, egunero ibiltzen nintzela igeriketan eta halako txorakeriak... Uf, ez nintzen isiltzen, erabat enbalatuta nenbilen, eta amak era arraroan begiratzen zidan, bat-batean erotu izan banintz bezala, berak badakielako, ongi asko gainera, bere nobio delako horrek tripako mina ematen didala.

Nolanahi ere, isiltzen ez nintzen bitartean, ihes egitearena indartuz zihoan nigan eta azken aste hauetako egonezin eta kabreoak lurrunduz zihoazen bihotza lasai eta bere-bare sentitu arte.

Antton.

Anttonekin gogoratzen nintzen, gordeleku bat edukitzearena bere ideia izan zelako, eta une hartan bere hutsunea ikaragarri sentitzen nuelako. Baina Antton oporretan dago. Nafarroan, urtero bezala. Eta ni, bitartean, bi txotxolo horiekin bueltaka, eta, era berean, bakar-bakarrik... Ez nuen gehiago agoantatzen!

Bada, esan dudan bezala, etxetik ihes egitea erabaki dudanez geroztik erabat lasaitu naiz. Adio ama eta bere bihotzeko txorimaloa! Amak zerbait sumatu ote du? Ez dakit. Etxera itzuli garenenean, ni berehalaxe joan naiz nire gelara.

Ezetz, ez nuela bazkaltzeko gogorik.

Uzteko bakean, hartutako pintxoekin nahikoa nuela.

Eta ama eta bere Romeo telebistaren aurrean jarri dira, nik, nire gelan eta ezkutuka, motxila prestatzen nuen bitartean...

Xabi?

Ama ate joka. Berehala motxila ohe azpian sartu dut.

Zer?

Ea zer egin behar nuen arratsaldean.

Eta hori esaten zuen bitartean gelara sartu. Baina, ordurako ohe gainean nengoen ni, komiki bat irakurtzen ari nintzelako plantak egiten.

Ez zela ziur, baina seguraski Mikelen etxera joango nintzela bideoaren bat ikustera, erantzun diot nik. (5-8)

Mariasun Landa. *Nire eskua zurean*. Erein, 2005.5-8. Orrialdeak

2. PASARTEA

Baina tira, esaten ari nintzen bezala, Idoiak kiroletan sartzen ditu bere energia guztiak eta ez berriketaldietan. Lasterka guztietan hartzen du parte eta domina pila bat dauka etxean, eskolarateko txapelketetan irabaziak, eta gainera matematiketan ere azkarrenetakoa da gelan, eta goapa, um... oso goapa. Egia esan behar badut, nire gelako mutil gehienei gustatzen zaie, baina berak ni aukeratu ninduen, geure gelako mutilik altuena naizelako seguruenik, edota kasete-zinta mordoa dudalako eta musikaz gehien dakiena naizelako... Auskalo!

Gogoan dut, kurtso hasi berrian, hizkuntzako klase orduan deskribaketak lantzen ari ginela eta, irakasleak deskribapena egiteko geure artean bat aukeratu behar genuela proposatu, eta nik, zozo alena, Idoia aukeratu. Ia hankaz gora erori nintzen maisuak idatzitakoa denon aurrean irakurtzeko agindu zidanean, oso polita atera zitzaidalako idazlan hura, idazten iaioa nintzelako. Puf!, tipo alua hura, egitan!

-Poeta! Poeta! Poeta!

Gelako guztiak builaka, algaraka. Neska guztiak txutxumutxuka, Txusik "que se besen, que se besen" marruka... Idoiaren aurpegiak semaforo gorria zirudien. Ia-ia hilda egoteko gogoa sentitu nuen egun hartan. Baina, handik ordu batera edo, Maripi etorri zitzaidan, gelako neskarik saltseroena, Idoiak idazlan hura beretzat nahi zuela esanez.

Ea zertarako, nik, haserre itxuran.

Kopiatzeko eta bere etxeko gelan ipintzeko.

Ezta pentsatu ere!, erantzun nion Maripiri.

Eta orduan, gutxien espero nuena bota zidan: ba, berea ere zutaz gustatzen da! Eta korrika aldegin zuen, Idoia eta besteak zeuden lekura. Idoiak niri begiratu eta irribarrea zuzendu zidan, eztarrian iltzatuta geratu zitzaidan irribarrea.

Mariasun Landa. Nire eskua zurean. Erein,2005.32-33. Orrialdeak.

3. PASARTEA

Ama ez dut ulertzen. Ez dakit zer ikusi duen tipo horrengan. Nik uste nuen biok bakarrik oso ondo bizi ginela. Beno, konturatu konturatzen nintzen noizbehinka negar egiten zuela, baina orduan, aitaren oroitzapenagatik zela pentsatzen nuen. Halakoetan, zer esan ez nekiela, nire gelan sartu eta leihotik begira egon ohi nintzen, denbora luzez, amak bakarrik egon nahi zuela pentsatzen nuelako, aitarekin izandako momentu goxo guztiez gogoratzen zela pentsatzen nuelako... Eta gero, gelatik irteten nintzen, eta gehienetan, ama normal ikusten nuen, negar atake hartatik salbo, sendatuta.

Txikitan, berriz, artean leihotik begira geratzen ez nintzenez, pelmada eman ohi nion amari negarraldi haiek suertatzen zitzaizkionean...

Zergatik egiten duzu negar, amatxo?

Baina berak, ia beti, burua astindu, begiak lehortu eta irribarre dardartia eskaintzen zidan, negarrez ikusi nuela disimulatu nahian edo...

-Goazen afaltzera, ederra! Gaur makarroiak dauzkagu eta!

Aitarena kontatzeko adina indar ez omen zuen oraindik.

Baina, egun batean, laupabost urte nituela, gerritik hartu, aupatu, eta bere ondoan jarri ninduen jangelako sofa loreduenean... Txikia izan arren, oso ondo gogoratzen dut sudurra gorrixka eta begiak lehortu berriak zituela. Oso serioa eta bere eskua nirean, zera esan zidan...

-Xabi, gaur aitaren istripuarena kontatuko dizut!

Mariasun Landa. Nire eskua zurean. Erein,2005.



Lan hau [Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia](#) baten mende dago.

Honakoak egin ditzakezu:

- Partekatu — partekatu, kopia eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan.
- Moldatu — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu edozein xedetarako, baita merkataritza-xedetarako ere.

Honako baldintzen arabera:

- Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.
- PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.